

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2022 Foru Dekretua, urtarrilaren 11koa. Onespena ematea Kultura eta Kirol Sailaren artxibo eta liburutegiekin zerikusia duten zerbitzuak emateagatiko prezio publikoei, bai eta sail horrek antolatutako kultur ekitaldietarako sarrerak saltzeagatiko prezioei ere

Ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak, Arabako Foru Sektore Publikoaren Tasa eta Prezio Publikoari buruzkoak, Arabako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa arautzen du bere artikuluetan.

Gaur egun, Kultura eta Kirol Saileko dokumentuen eta argazkien erreprografia eta erreproduziorako zerbitzuen prezio publikoen erregulazioa Gobernu Kontseiluaren apirilaren 20ko 32/2004 Foru Dekretuan dago jasota. Azterketa eta hausnarketa prozesu baten ondoren, eta arestian aipatutako dekretua onartu zenetik igarotako denbora kontuan hartuta, beharrezkotzat jotzen da hura eguneratzea.

Era berean, Kultura eta Kirol Sailean beharrezkoak berriak sortu dira Ignacio Aldecoa Kultur Etxeko aretoak lagatzearen eta kultura ekitaldiak antolatzearen ondorioz, eta, horregatik, prezio publiko berriak ezarri behar dira.

Beraz, foru dekretu honen xedea da zerbitzu hauengatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzea: dokumentuak fotokopiatzea, dokumentuak eta argazkiak erreproduzitzea, Ignacio Aldecoa Kultur Etxeko aretoak lagatzen laguntzea eta kultura arloan eskumena duen sailak antolatutako kultur ekitaldietarako sarrerak saltzea.

Ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauak, Arabako Foru Sektore Publikoko Tasa eta Prezio Publikoenak, bere 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, prezio publikoak zerbitzua emateak eragindako kostu ekonomikoak estaltzen dituen mailan ezarri behar dira gutxienez, eta prezio publikoak aurreko parametroak baino txikiagoak izan daitezke, hala gomendatzen duten gizarte, ongintza, kultura edo interes publikoko arrazoiak daudenean.

Dokumentuen eta argazkien erreproduziorako egitearen prezio publikoen kasuan, eta Ignacio Aldecoa Kultur Etxeko aretoak lagatzeko laguntza zerbitzuei dagokienez, prezio publikoak estaltzen ditu zerbitzu horiek sortzen dituzten kostu ekonomikoak. Baina ez kultura ekitaldietarako sarreraren kasuan; halakoetan, askotan, ez du estaliko antolatutako jardueraren kostua. Nolanahi ere, jotzen da badirela arrazoiak gure kultura programaziorako ahalik eta sarbiderik handiena bermatzean eta herritarren kultura eskubideak egikaritzean oinarrituak, eta erabat justifikatzen dutenak beren kostua baino prezio publiko txikiagoa ezartzea.

Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako Urteko Araugintza Planean jasota dago Artxiboen eta Kultur Etxeen Zerbitzuetako dokumentuen eta argazkien erreprografia eta erreproduziorako ataleko zerbitzuak emateagatiko prezio publikoak onartzeko eta kultura ikuskizunen prezio publikoak onartzeko dekretuen onarpena, baina efizientzia eta efikazia administratiboaren arrazoiak direla eta, komeni da aurretik aipatutako prezio publiko guztiak testu bakar batean antolatzea.

Dekretu hau izapidetzean, erregulazio onaren printzipioak bete dira. Horrela, azaldutako aurrekarietan behar bezala justifikatu da prezio publikoen araudia aldatu behar dela, eta, gainera, arau aldaketa proportzionala da, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbestekoa den gutxienez mugatzen baita: zerbitzu jakin batzuetarako sarbidean prezio publikoak ezartzea.

Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da; izan ere, behar bezala justifikatuta dago ordenamendu juridikoan txertatzea, bai eta hori ematen duen organoa gaitzea ere, foru arau batean ezarritakoaren garapena baita.

Gardentasunaren printzipioa bermatzea dela eta, otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako lurralde historikoko gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onarenak, 24. artikuluan xedatutakoa bete da, arauen testua entzunaldi izapidetzepean eta jendaurreen jarri baitzen.

Eraginkortasun printzipioari dagokionez, planteatutako erregulazioak, bere izaeragatik, ez dakarkie administrazio karga erantsirik edo alferrikakorik administratuei, zerbitzu jakin batzuegatik eska daitezkeen prezio publikoak ordaintzeari dagozkionak izan ezik, ezta baliabide publikoen kontsumo handiagoa ere.

Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da, Kultura eta Kiroleko diputatuak eta lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatuak batera proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaurko bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea

Foru dekretu honen xedea da Kultura eta Kirol Sailak ematen dituen ondorengo zerbitzuen-gatik ordaindu beharreko prezio publikoak ezartzea:

– Dokumentuen fotokopien eta dokumentuen eta argazkien erreprodukzioaren zerbitzuak, Arabako Foru Aldundian kulturaren arloko eskumena duen sailaren menpeko artxibo eta liburutegiek eskainiak.

– Ignacio Aldecoa Kultur Etxeko aretoak lagatzen laguntzeko zerbitzuak: atezaintzako langileak eta irudi eta soinuko teknikariak.

– Arabako Foru Aldundian kulturaren arloko eskumena duen sailak antolatutako kultur ekitaldi ez doakoetara sartzeko eskubidea ematen duten sarrerak saltzeko zerbitzua.

2. artikulua. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak

Prezio publiko horiek ordaindu behar dituzte aurreko artikuluan zerrendatutako zerbitzuak eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek.

3. artikulua. Modalitateak eta zenbatekoak

1. Prezio publikoa zenbateko finko baten arabera zehaztuko da, zerbitzua emateko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen kostuaren arabera kalkulatuta.

2. Aurreko paragrafoan aipatzen diren tarifak edo kopuruak, kulturaren arloan eskumena duen sailaren menpeko artxibo eta liburutegiek eskaintzen dituzten dokumentuen eta argazkien erreprografiako eta erreprodukzioko zerbitzuei dagozkienak, honako hauek izango dira:

a) Autozerbitzuko fotokopia:	
a.1. Zuria eta beltza, DIN A-4 eta DIN A-3	0,10 euro orrialdeko
a.2. Kolorea, DIN A-4 eta DIN A-3	0,50 euro orrialdeko
b) 200 ppp-tik beherako bereizmenean dauden eta DIN A-3 neurrikoak ez diren testu dokumentuak eta dokumentu grafikoak erreproduzitzea:	
b.1. Irudi digitala eta irudi fitxategia sortzea	0,15 euro irudi fitxategiko
b.2. 80 gr-ko Paperaren gaineko inprimaketa zuri-beltza DIN A4 (b.1 kontzeptua barne)	0,20 euro orrialdeko
b.3. 80 gr-ko paperaren gaineko inprimaketa zuri-beltza DIN A-3 (b.1 kontzeptua barne)	0,40 euro orrialdeko
b.4. Fitxategiak CDan grabatzea	3,00 euro unitateko

c) Argazkiak erreproduzitzea, positibotik, negatibo plastikotik edo kristaletik abiatuta, zuri-beltzeko edo koloretako argazki paperaren gainean:	
c.1. 9 x 13 cm-ko formatuan inprimatzea	22,00 euro unitateko
c.2. c.1 kontzeptuaren kopia gehigarriak	5,00 euro unitateko
c.3. 10 x 15 cm-ko formatuan inprimatzea	22,00 euro unitateko
c.4. c.3 kontzeptuaren kopia gehigarriak	5,00 euro unitateko
c.5. 13 x 18 cm-ko formatuan inprimatzea	22,00 euro unitateko
c.6. c.5 kontzeptuaren kopia gehigarriak	7,00 euro unitateko
c.7. 15 x 20 cm-ko formatuan inprimatzea	27,00 euro unitateko
c.8. c.7 kontzeptuaren kopia gehigarriak	8,00 euro unitateko
c.9. 18 x 24 cm-ko formatuan inprimatzea	28,00 euro unitateko
c.10. c.9 kontzeptuaren kopia gehigarriak	12,00 euro unitateko
c.11. 20 x 25 cm-ko formatuan inprimatzea	28,00 euro unitateko
c.12. c.11 kontzeptuaren kopia gehigarriak	12,00 euro unitateko
c.13. 24 x 30 cm-ko formatuan inprimatzea	32,00 euro unitateko
c.14. c.13 kontzeptuaren kopia gehigarriak	15,00 euro unitateko
c.15. 30 x 40 cm-ko formatuan inprimatzea	32,00 euro unitateko
c.16. c.15 kontzeptuaren kopia gehigarriak	15,00 euro unitateko
c.17. 40 x 50 cm-ko formatuan inprimatzea	36,00 euro unitateko
c.18. c.17 kontzeptuaren kopia gehigarriak	24,00 euro unitateko
c.19. 50 x 60 cm-ko formatuan inprimatzea	42,00 euro unitateko
c.20. c.19 kontzeptuaren kopia gehigarriak	30,00 euro unitateko
d) Argazkien erreproduzioak, positibotik, negatibo plastikotik edo kristaletik abiatuta, euskarri digitalaren gainean, zuri-beltzean edo koloretan, 300-ppp tik gorako bereizmenean.	
d.1. Tamaina 13 x 18 cm	20,00 euro unitateko
d.2. 24 x 18 cm-ko formatua	25,00 euro unitateko
d.3. 30 x 20 cm-ko formatua	35,00 euro unitateko
d.4. 40 x 30 cm-ko formatua	67,00 euro unitateko
d.5. Fitxategiak CDan grabatzea	3,00 euro unitateko
e) DIN A-3 tamainatik gorako dokumentu grafiko zuri-beltzak eta koloretakoak erreproduzitzea:	
e.1. - 200 ppp-ko edo gehiagoko bereizmeneko irudi digitala eta irudi edizioa.	3,50 euro/ m ²
e.2. Planoak zuri-beltzean inprimatzea, DIN A-3 baino tamaina handiagoko 80 gr-ko paperean.	5,80 euro/ m ²
e.3. Koloretako planoak inprimatzea, DIN A-3 baino tamaina handiagoko 80 gr-ko paperean.	9,00 euro/ m ²
e.4. Mapak zuri-beltzean eta koloretan, DIN A-3 baino tamaina handiagoko 80 gr-ko paperean.	10,80 euro/ m ²
e.5. Posterrak zuri-beltzean eta koloretan, DIN A-3 baino tamaina handiagoko 150 gr-ko paper satinatuan.	40,50 euro/ m ²
f) Beste kontzeptu batzuk	
f.1. Fitxategiak CDan grabatzea	3,00 euro unitateko
f.2. Manipulazio bereziak behar izanez gero (aurretzioak aurrekontua eskatuta), erreproduzitu beharreko dokumentazioaren tratamendua:	40 euro orduko

3. Ignacio Aldecoa Kultur Etxeko aretoak lagatzen laguntzeko zerbitzuen tarifak honako hauek izango dira:

LANGILE MOTA	PREZIOA ORDUKO
Teknikariak ez diren langileak (atezaintza)	19 euro orduko
Teknikariak (irudi eta soinu teknikariak)	23 euro orduko

4. Egoki iriztitako kultura ekitaldi guztiak doan antolatzeaz gain, Arabako Foru Aldundian kulturaren eta kirolaren arloko eskumena duen sailak doakoak ez diren ekitaldiak antolatu ahal izango ditu, eta, horretarako, prezio publikoak eskatuko dira sarrera gisa.

4.1. Oro har, sarrera gisa eskatu beharreko tarifak eta kopuruak honako hauek izango dira, cacheak zehaztutakoak, hau da, jardueraren kostu globala:

KULTUR EKITALDI MOTA	PREZIO ARRUNTA SARRERAREN ARABERA
A MOTA (3.000 euro-rainoko cachea)	3,00 euro
B MOTA (3.001 eurotik 6.999 eurora bitarteko cachea)	6,00 euro
C MOTA (7.000 eurotik 11.999 eurora bitarteko cachea)	9,00 euro
D MOTA (12.000 eurotik 19.999 eurora bitarteko cachea)	12,00 euro
E MOTA (\geq 20.000 euro)	3,00 euroko igoera, 3.000 euroko cachearen frakzio bakoitzeko

4.2. Prezio horiek dagozkien zergak barne hartzen dituzte, baita sarrerak erosteko komisioa ere, ezar daitekeen salmenta digitaleko plataformaren bidez.

4.3. Doako ez den edozein kultura ekitaldi egin aurretik, kulturaren eta kirolaren arloan eskumena duen sailak dagokion ebazpenean zehaztu beharko du zer kultura ekitaldi mota den (A-E motakoa).

4.4. Sarrera orokorreko prezioei ehuneko 50eko murrizketa aplikatuko zaie, honako kasu hauetan:

- Familia ugarietako kideak.
- Arte irakaskuntza arautuetako ikasleak.
- Gazte Txartelaren edo Europako gazte txartel baliokidearen titularrak, Gazte Txartelaren Europako Elkartearen esparruan (EYCA European Youth Card Association).
- Legez langabezian dauden pertsonak.
- Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta edo Bizitzeko Gutxieneko Diru Sarrera jasotzen duten pertsonak.

4.5. Egoera horiek justifikatzen dituen egiaztagiri balioduna eta kasu bakoitzean behar bezala eguneratua aurkezteko, erakundeak erabakitzen duen unean eskatuko da.

4.6. Esertzeko eskubiderik ez duten 6 urtetik beherakoak doan sartzea hartuko da kontuan.

4. artikulua. Prezioak eguneratzea

Ebazpen honen aurreko artikuluan ezarritako prezio publikoak eguneratu edo/eta aldatzeko, kultura eskumena duen saileko titularraren foru agindua beharko da, eta horrekin batera memoria ekonomiko finantzario bat aurkeztu beharko da, Arabako Foru Sektore Publikoko Tasei eta Prezio Publikoei buruzko ekainaren 27ko 9/2018 Foru Arauaren 20.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

5. artikulua. Sortzapena

Foru dekretu honen xede diren prezio publikoak ordaintzeko betebeharra zerbitzuak eskatzeko unean sortzen da, eta eskaera hori ez da izapidetuko eska daitekeen ordainketa egiaztatuta arte.

Kultura ekitaldietarako sarreren kasuan, sarrera hartzean sortuko da prezio publikoa. Prezioa ordaindu behar duenari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik jarduera egiten ez bada, dago-kion zenbatekoa itzuli beharko da.

6. artikulua. Kudeaketa eta likidazioa

1. Prezio publiko horiek kudeatzea eta administratzea Arabako Foru Aldundiari dagokio, eta kultura arloan eskumena duen sailaren bidez gauzatuko ditu, hargatik eragotzi gabe sail horrek baimena ematen duen erakundearen bidez egin ahal izatea, dauden administrazio kontratazioen arabera.

2. Ordainketa gutunak horretarako jaulki ondoren egingo da ordainketa, Aldundian eskudirua emanda, Aldundiak irekitako kontu korronte arruntetan banku transferentzia eginda edo diru bilketan laguntzen duten finantza erakundeetan ordainketa gutuna sartuta. Kultura ekitaldietarako sarrerren kasuan, horretarako ezartzen diren publikoarentzako sarrerren salmenta puntuetan egingo da ordainketa.

7. artikulua. Jabetza intelektualari buruzko legeria betetzea

Erreproduzioak edozein euskarritan entregatzeko, jabetza intelektualari buruzko legeria eta aplikatzekoa den indarreko gainerako araudia bete beharko dira.

Ondoren, erreproduzioak erabili ahal izateko, errespetatu egin beharko da, nolana ere, zein helburu espezifikotarako baimendu diren.

Xedapen indargabetzailea

Xedapen hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratzen dira haren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, apirilaren 20ko 32/2004 Foru Dekretua, Gobernu Kontseiluarena, Arabako Foru Aldundiko Artxibo eta Liburutegi Zerbitzuko dokumentuen eta argazkien erreprografia eta erreproduzio ataleko zerbitzuak onartzen dituen.

Amaierako xedapena

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 11

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Kultura zuzendaria

MARÍA INMACULADA SÁNCHEZ ARBE

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ